

## Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Donostia, 2016ko abenduaren 15a

### UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

#### KONTROL MOZIOA, ETXEKO OLIOAREN BILKETA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetan OGASUNEKO BATZORDEAn Jaime Dominguez-Macaya jaunari egindako interpelazioaren ondorio da.

#### JUSTIFIKAZIOA

Hondakinei buruzko batzordean, hiriko hondakinen kudeaketaren gaineko azterketa xehea egiten ari dira, defizit metatua murrizteko asmoz. Landu beharreko gaien artean, deigarria iruditzen zaigu olio tratatzeak ez ekartzea inongo diru-sarrerarik.

**Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen** helburuetako bat da, 2020. urterako, etxeetan eta saltokietan sortutako hondakin guztien pisuaren % 50, gutxienez, osatzea paperak, metalek, beirak, plastikoak, biohondakinek edo birzikla daitezkeen beste hondakin batzuek. Ingurumen sostengagarritasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da gehiago eta hobeto birziklatzeko neurriak garatzea. Beraz, beharrezkoa da gizartearen kontzientzia handitzea: sortzen ditugun hondakinen gaineko erantzukizun indibiduala eta kolektiboa izatea. Gaur egun birziklatzen den olio kopurua handitzeko neurriak behar dira. Mila litro ur kutsa daitezke litro bat oliorekin soilik.

Azaroaren 29an, Gobernu Batzarrak onartu zuen etxeke olio erabilia edukiontzietan bildu, eramán, birziklatu eta berrerabiltzeko kontratua luzatzea, Udalak ezer ordaindu gabe.

## Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Batzordean, gure taldeak aurkeztutako interpelazioaren bitartez, galdetu genuen ea badagoen aukerarik irabaziak lortzeko etxeko olio erabilia birziklatuta, hondakinen kudeaketan metatu den defizita murrizteko irtenbideak bilatu nahian. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen ez dela irabazirik ateratzen etxeko olioaren kudeaketa eta tratamenduarekin, eta horregatik erabaki zutela enpresa esleipendunari kontratua luzatzea. Irabazi Donostiaren ustez, hain zuzen ere, irabaziak ematen dituelako kudea dezake eta kudeatzen du zerbitzua enpresa esleipendunak. Bestela, ez luke egingo. Bestalde, kontzientziazio programak garatuz gero, olio birziklatuaren bolumena handituko litzateke eta horrek, zalantzarik gabe, irabaziak ekarriko lituzke.

Hori dela eta, uste dugu garrantzitsua dela, hondakinei buruzko batzordean planteatu zen bezala, olio birziklatuta irabaziak lortzea eta, formula hori aplikatuta, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuan dagoen defizita murriztea.

Gainera, gure ustez, funtsezkoa da begirada altxatzea etxeko olioaren kudeaketa eta tratamenduaren alorrean, eta ikustea beste hiri batzuetan hainbat alternatiba proposatu dituztela, ekonomian ez ezik, enplegu sorreran ere eragina dutenak. Zaragozan, adibidez, duela gutxi erabaki dute mota horretako edukiontzien kopurua bikoiztea hirian. Hortaz, apustu egin dute, alde batetik, birziklapena areagotzeko eta, beste alde batetik, enplegua sortzeko. Gainera, aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzenduta dago enplegua, enplegu zentro berezi baten bitartez. Edukiontzien kopurua handituta, sei pertsona gehiago kontratatu daitezke.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio etxeko olio birziklatzeko edukiontzi gehiago jar ditzala, etxeko olio birziklatuaren kopurua handitzeko.

## Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio egin dezala etxeko olio erabiliaren birziklapena zuzenean kudeatzeari buruzko azterketa bat, zuzenean enplegua sortzeko aukerak ikusi eta kudeaketa horretatik irabaziak lortzeko.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kanpainak egin ditzala, oro har, birziklatzearen inguruan eta, bereziki, etxeko olioaren birziklatzearen inguruan kontzientziazteko.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.